

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

TB-I: PASAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN TESTU BATERATUA SARRERA.

TB. 01: AURRETIKOAK.

Pasaiako Arau Subsidiarioen proiektua Udalbatzaren osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batez 1994ko ekainaren 27an.

Hasierako Onespenaren eta dokumentuaren jendaurreko erakusketaren iragarkia 1994ko irailaren 7ko H.E.A.A.an, 1994ko abuztuaren 2ko G.A.O.n, 1994ko uztailaren 15eko Eginen, 1994ko uztailaren 19ko Euskaldunon Egunkarian eta 1994ko irailaren 16ko Diario Vascon argitaratu zen.

Jendaurreko erakusketa 1994ko maiatzaren 15ean amaitu zelarik, 29 alegazio idazki aurkeztu ziren legeak ezarritako epearen barruan.

Egoki diren txostenak ere jaulki zirelarik, arau Subsidiarioen behin-behineko onespea ematea erabaki zuen osoko bilkurak 1995eko maiatzaren 15eko bilkuran, zenbait alegazioren ondoriozko aldaketa batzuk sartuz eta bai udalbatzak berak hai arauak idatzi dituen taldeak egindako zenbait aldaketa behituz. Berebat, aipatu data horretako osoko bilkurak Plana, espediente osarekin bat, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetara jartzea erabaki zuen.

Diputatuen Kontseiluak, 1996ko ekainaren 11n egindako bilkuran, Pasaiako Udalaren Planeamendurako Arau Subsidiarioak behin-betiko onestea erabaki zuen, zenbait baldintza jarri ondoren.

Behin-betiko erabaki hori 1996ko abuztuaren 13ko G.A.O.n argitaratu zen, Testu Bateratu bat onartu beharrezkin batera. Testu horretan, espedientea osatzen duten dokumentu guztiak bateratuz, Udalaren behin-behineko Onespen erabakian jasotako aldaketak sartu behar ziren, hala nola behin-betiko erabakian jasotakoak.

Hona ondoren Diputatuen Kontseiluak hartu zuen aipatu erabakia:

PASAIKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUAK. (GHI-228/95-P05).

Diputatuen Kontseiluak, 1996ko ekainaren 11ko batzarraldian, erabaki bat hartu zuen eta horren edukina ematen da ondoren argitara:

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Behin-betiko onartzea PASAIKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUAK.

Behin-betiko onarpena erabaki honen bigarren zatian adierazitakoaren kalterik gabe eta ondorengo baldintzekin ematen da:

1.- KOMUNIKABIDEEN HERRIKO SISTEMA

1.1. BIDE AZPIEGITURA

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

1.- Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusiaren Aurreproiektuak Pasaiako Saihesbidearen konponbidea jaso beharko du, Buenavistara sartzeko Portuaren gaineko hidezubia aurreikusiz eta Antxoko irteera N-1 errepide azpitik egiteko aukera emanez.

2.- 02-B-2 Herrera H.E.A. arearako grafitutako antolaketa, eraikuntzetatik errepidera egon beharreko distantziari dagokionean, ez da behartze indarrekoa. Dena den, Pasaiako Portuaren Zerbitzu Zonaren Antolaketako Plan Berezian zehaztu behar da.

3.- Etorkizunean A. 2 Antxo Hegoaldea: H.E.A. areara zuzenean sartzeko eskuinetara jo beharko da bakarrik eta, beraz, puntu horretan grafiatuta dagoen glorieta zaititua kendu egingo da. Errepide aurrean Area horretako eraikuntzaren lerrokadurak Xehetasun Estudioetan zehaztuko dira.

4.- Irin Fabrika Zaharraren inguruko San Marcos bide zaharretik Molinaorako ibilgailuen egungo sarrerari eusi beharko zaio.

1.2. TRENBIDE SAREA

5.- Pasai Antxotik pasatzerakoan Donostia-Hendaia trenbidearen erdibiketa, jaso behar da dokumentuan.

1.3. PORTUAREN HERRIKO SISTEMA

6.- Portuaren zerbitzu ingurune guztia portuaren herriko sistema gisa kalifikatuta gelditzen da.

Hiri Antolaketako Arauek portualderako jasotzen dituzten erabilera eta gainerako xedapenak, nahiz eta arau mailako indarririk ez izan, aipatu Plan Berezian bitartez Portua antolatzeke orientazio bezala erabiliko dira, beti ere, Plan hori egiterakoan portuko agintariak egiaztatzen badute aipatu erabilera eta xedapenek ez dutela interferentziarik sortuko portuaren ustiapenari buruzko eskuduntzak erabiltzerakoan.

7.- Portuko agintariak eta Udalak, elkar hartuta, zenbait zonetan, eta bereziki Antxoko kaiaren barruan, baimenak ematerakoan kontuan hartu beharreko antolaketa aurreratzeke aukera dute, beti ere, antolaketa hori aurreikusitako Plan Berezian sartzeko kalterik gabe.

2.- ZERBITZUEN AZPIEGITURETAKO HERRIKO SISTEMA.

2.1.- TELEKOMUNIKABIDEETAKO HERRIKO SISTEMA.

8.- Telekomunikabideen azpiegiturako herriko sistema bezala kalifikatzen dira, eta horrela azaldu behar dira dokumentuan, Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordearen informari erantsitako planoetan jasotzen diren ondorengo elementuak:

-Euskal Herriko Autonomi Elkarteke Telekomunikabideetako ardatz-sarearen iruzadura Pasaiako udalerrian: zuntz optikoaren hiderapena, Donostia-Hendaia linean Euskal Trenbideetako trenbidearen jabari ingunuaren parean eta barruan

-Jaizkibel mendiko komunikabide zentroko hartunea.

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

-Jaizkibel mendiko komunikabide zentroa.

Era berean, planaren arautegiak Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordearen aipatu informeak aipatzen dituen azpiegituren zortasunak jasoko ditu.

2.2.- UR ZIKINAK SANEATU ETA ARAZTU

9.- Ur zikinak saneatzeko eta arazteko sarearen eskema orokorra Añarbeko Ur Mankomunitateak onartutakoa izango da.

3.- GIZARTE EKIPAMENDUEN HERRIKO SISTEMA

10.- Pasai San Pedroko hilerriari dagokionez, Euskal Jaurlaritzako Osasun Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pasaiako Udalak aztertuko dituzte Hiri Antolaketako Arauen xedapenak eta, ondorioz, kokalekua zehaztuko dute sektore legeriak ezarritako mugaketen arabera.

11.- Arauek Ondartxo 1 HEA eta Ondartxo 2 HEA eremuetarako erabilera araudia zehaztu beharko dute eta, era berean, eraikitze aukerak ezarriko dituzte, beti ere, zorrotz murriztuz.

4.- IZADIKO BALIABIDEEN ANTOLAKETA

4.1 KOSTA

12.- Kostetako Zuzendaritza Nagusiak 1995eko abenduaren 21ean egindako txostenean adierazten denez Sektoreko Antolaketaren 5.6 zenbakidun aldatutako planoan ageri diren zenbati akats txiki zuzendu beharko dira, bai eta ondorengo area hauei dagozkien hirigintza fitxen planoetan ageri direnak ere: Jaizkibel 4.1.0.5, San Pedro 4.2.0.1, Uliá 4.12.13 eta Antxo Kaia 4.4.0.5; Kosta Legeko 4.10. artikuluan adierazitakoari jarraituz itsas-seinalizazioko instalazioak herri jabaritzat hartu beharko dira eta Mutilago muturretik Gastaretxo bitartean dagoen kosta zatiari ezarritako babes zorgunea kendu egin beharko da, izan ere, nazioaren defentsa eta segurtasunerako interesa duen instalazio militarra baita (Defentsa Ministerioaren 13/80 agindua, ekainaren 24koa) Kosta Legeko 21. 2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

13.- Hiri antolaketa arauen agiriak zuzendu beharko dira gaur egun behin-betikotzat hartzen diren mugaketak (portu aldeak: Ministerioaren agindua, 1990eko azaroakoa, eta Jaizkibelko itsasertza, Ministerioaren agindua, 1995eko urriaren 26koa) zein behin-behinekotzat sailkatuta daudenak (Molinako erreka eta Uliako itsasertza) sar daitezten.

14.- 3.6.1 Sekzioan -Antolaketa Arauen Kostei dagokien azalean saneamendu sareko haldintzak sartu beharko dira (Kosta Legeko 44.6 artikulua eta aldi baterako 4. xedapena).

15.- Kosta Legea garatzen duen Erregelamendu Orokorreko aldi baterako bederatzigarren xedepenari jarraituz, ur ertzetik 20 metrora baino gutxiagora erabilera eta eraiki berriak egiteko baimena eman ahal izateko, beharrezko diren

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko da aldez aurretik.

4.2 URA.

16.- Jaizkibelko Unitate Hidrogeologikoko lur azpiko ura oso erraz kutsa daitekeenez gero, zonifikazio orokorrari buruzko hirigintza arauak gogoan izan beharko dute eta inguru hori babesteko lehendik ezarritako baldintzei beste horri buruzkoa ere erantsi beharko diote. Alde horietan -Pasaiko mugen barruan dauden Jaizkibelgo lur guztiak sartzen dira bertan- erabat debekatuta dago toxizitatea, konposizio kimikoa edo bakteriologikoa dela eta lur azpiko ura kutsa dezaketen hondakinak isur ditzaketen iharduerak ezartzea.

17.- Lur azpiko ura kutsa dezaketen hondakinak sor ditzaketen bereziki haimendutako iharduerak ezartzeko, horretarako baimena duten nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak edo etxebizitzaren saneamendurako hobi septikoak, esate baterako, haimena eskatzerakoan aipatu arrisku horri aurre egiteko neurrien eraginkortasuna egiaztatzea beharko dute.

5.- BESTE ZENBAIT ZEHAZTASUN

5.1.- ZEHAZTASUN OROKORRAK

18.- Jaizkibel, Ulla eta Pasaiko porturako agirian aurreikusitako Plan Berezikiak Euskal Herriko Lurralde Antolaketa Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio behin-betiko onartu baino lehen onespena eman dakien.

19.- Horrez gain, San Pedro eta Donibaneko Birgaikuntza Integratuko Plan Berezikiak ere Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren eta Kultura Sailaren onespena izan beharko dute behin-betiko onartu ahal izateko.

20.- Zonifikazio orokorrari dagokionez 1/2000 eskaladun agiriak nagusituko dira.

21.- Eskualdeko zonifikazio orokorrari buruzko 14. zenbakidun planoak ez du arau mailako indarririk.

22.- Grafikoki adierazi beharko dira natura aldetik interesekoak diren guneen katalogoan sartutako tokiak bai eta espedientearen araudian zehaztu diren katalogoko gainontzeko elementuak ere.

23.- Antolaketa Arauen 12. artikuluan adierazitako F.1.5-Espazio libre pribatuak kategoria kendu egin beharko da.

24.- Herriko sistema eta auzoko sistemei dagokienez, lurra jabetza kentze sistemaren bidez lortuko dela dio agirian; horren ordez jabetza kentzearen bidez lortuko dela adierazi beharko du.

25.- Lagapen eta banaketa legezko betebeharrak egiteko epeak hiritartze lanak egiteko agirian ezarritako berberak izango dira.

26.- Arauen 227. artikuluan hondakin inerte eta inertizatuen gestioari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuari eta dekretu hori garatzen duen Aginduari

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

buruzko aipamena egin beharko da; dekretu horri jarraituz, hondakin inerteen zaborteziak, betelanak eta lurrekin egokitze lanak egiteko Autonomi Elkarteak ingurugiro arloko erakundearen baimena beharko da eta erakunde horrek zabortezi hori ezartzeko tokia egokia den ebaluatuko du, besteak beste.

27.- 236. artikulua kendu eta honako hau jarri beharko da haren tokian: Ingurugiroko inpaktuaren ebaluaziori buruzko 1302/1986 Dekretua eta dekretu hori garatzen duen araudiari jarraituz, ingurugiroan duten inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuek aipatu arau horietan adierazitakoa bete beharko dute.

5.2. LUR HIRITARRA

28.- Araneder eta Tokialai lur hiritarreko ihardun unitateetako espazio libreen eta ekipamenduen dotazioak ez dira herriko sistematzat hartuko gestioari dagokionez.

5.3. LUR HIRITARREZINA

29.- Larrabide eta Trintxerpe Goiko Hirigintza Iharduerako Areatan nekazaritza ustiapenei lotutako eraikinak bakarrik egin ahal izango dira, beti ere, horretarako erabiliko den lurzatiak indarrean dagoen araudiak ezarritako gutxieneko neurriak baditu.

Beraz, arauetan aurkakoa dioten xedapenak aldatuztat hartu beharko dira, bereziki, 1.500 m²-ko lurzatia, eraikigarritasun dentsitatea eta Trintxerpe Goiko landa ingurunea hobetzeko Plan Berezia.

30.- Lur hiritarrezinean nekazaritza ustiapenei lotutako etxebizitzak egin nahi izanez gero nekazaritza arloaren ardura duen Foru Aldundiko departamentuaren bideragarritasun txostena beharko da.

31.- Ulia eta Jaizkibel alderako Antolaketa Arauek zehaztutakoa inguru horiek antolatu eta babesteko aurreikusitako Plan Berezietan sakonago aztertu eta zehaztu ondoren egin daitezkeen egokitzapen eta moldaketek kalterik gabe ulertu beharko da.

32.- Lur hiritarrezinetako herriko sistemak hirigintza arloko araudietan ezarritako mekanismoen bidez eratuko dira.

33.- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustialeku intentsiboek bai eta iharduera horren ondorioz sortzen diren hondakin organikoak botatzeko lekuek ur hartuneetatik 200 metro baino gehiagoko tartea urzi beharko dutela zehaztu beharko da 127. atalean; ur hartune horiek grafiatu egin beharko dira.

34.- Lur hiritarrezinean dauden granjentzat zein herri erabilerako eta interes orokorreko eraikinentzat finkatutako eraikigarritasun koefizientea kendu eta horren lekuan eraiki daitezkeen gehienezko azalera ezarri beharko da.

35.- Gipuzkoako Mendien 6/1994 Foru Arauari buruzko aipamena egin beharko da, bereziki zuhaitzak landatu eta moztea, basoberritzea eta paisajea eta izadia babesteari buruzko artikulua.

36.- Jaizkibel mendia Herri Erabilerako Mendien Katalogoan sartuta dago eta Mendien Foru Arauari jarraituz Baso erabilerarako lurtzat hartuko da. Zerbaki

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

zuzena 2.064 da eta ez 19. zenbakia, Jaizkibel HIaren fitxan ageri dena.

6.-KULTUR ONDAREA

37.- Pasai Donibaneko hiriguneko kultur ondasuna monumentu multzotzat sailkatuta dago eta horren ondorioz babes araudia du; planean inguru horretarako ezarritako araudiarekin kontraesanik sortuz gero, babes araudian adierazitakoak izango du lehentasuna.

38.- Monumentu multzotzat hartutako alde horren barruan dauden elementuak, Hiriginza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren 1994ko uzailaren 9ko Aginduari jarraituz hasitako birgaikuntza integratuko arearekin bat datozenak, erabaki edo kentzeko Euskal kultur ondareari buruzko 7/1990 Legeko 36. artikuluan ezarritako xedegabetzeko tramitea egin behar du.

BIGARRENA: *Luzuriaga 01 Antxo hegoaldea hiriguneari buruz Pasaiako Antolaketa Arauetan zehaztutakoaren behin-betiko onarpena etenda uztea, harik eta erabaki honen azalpenean adierazitakoari behar bezalako konponbidea bilatu arte.*

HIRUGARRENA: *Plana berehala indarrean jartzearen kalterik gabe, Pasaiako udal batzarrek espedientean ageri diren agiriez osatutako bategindako testua onartu behar du, udalak behin-behineko onartu zuenean hartutako erabakian eta honako erabaki honetan adierazitako aldaketa eta zuzenketak harnetuz; testu bategin hori Foru Aldundiari bidali behar du hiru hilabete baino lehen onar dezan.*

Bategindako testu horretan Pasaiako Udalak Luzuriaga HIari dagokion fitxa berrikusi ahal izango du, esparru horretako antolaketa zehatua egin edo Barne Eraberrikuntzako Plana egiteko oinarritzko irizpideak zeintzuk izango diren zehaztuz.

Horrez gain, Pasaiako Udalak Euskal Herriko Lurralde Antolaketa Batzordean aurkeztutako txostenen edukia aztertzea behar du, bategindako testua egiterakoan kontuan hartu behar dituen erabakitzeko.

Erabaki hau behin-betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Donostia-San Sebastian, 1996ko uzailak 29

IDAZKARI TEKNIKOA

Javier CAPDEVILA MAYORAL

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

TR. 02: TESTU BATERATUKO ALDAKETAK.

Aurreko puntuan deskribatu den prozesuaren ondorioz, Testu Bateratua egiteari ekin zaio. Horretan bi iharduera mota bereizi behar dira: Behin-behineko Onespen fasearen ondoriozkoak batzuk eta Diputatuen Kontseiluak hartutako Behin-betiko Onespen erabakiaren ondoriozkoak besteak.

a) Behin-behineko Onespen erabakian jasotako aldaketak.

Aldaketa hauen xehetasunak dokumentu Eranskin batean jaso ziren. Xehetasun horiek, 34 atal edo aldaketa osatzen zutelarik, Hasierako Onespen dokumentuan zerrendatu eta zenbatu ziren.

b) Behin-betiko Onespen erabakiaren ondoriozko aldaketak.

Diputatuen Kontseiluaren erabakiz gehitu diren aldaketak erabakiaren lehen puntuan jaso dira eta sei ataletan antolatu dira, guztira 38 baldintza izan direlarik.

Erabakiaren bigarren puntuak Pasaiko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen behin-betiko onespenean zuten, Antxo Hegoaldea 01 "Luzuriaga" Eremuari dagokionean, harik eta erabakiko azalpen-atalean esarritakoari erantzun egoki bat eman arte.

Hirugarren puntuak, azkenik, Testu Bateratu bat idazteko derrigorotasuna ezarri zuten.

Lehen puntuan jasotzen diren baldintzen betearazpenari dagokionean:

1.- KOMUNIKABIDEEN SISTEMA OROKORRA.**1.1. BIDE AZPIEGITURA.** (1.etik 4.enera arteko baldintzak).

Herremanak izan dira Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusiarekin; ondorioz aipatu aldaketak gehitzeari ekin zio, Udal harrutikoak direnak behinik behin.

1.2. TRENBIDE SAREA.

5. baldintza honek sortu duen arazoari ezin izan zaio konponbiderik eman, maila formalean eta ez-formalean egindako ahaleginak ahalegin, Eusko Jaurlaritzaren garraioi eta Herrilan Sailak erantzunik eman ez duelako.

1.3. PORTUKO SISTEMA OROKORRA. (6 eta 7. baldintzak).

Portuko Zerbitzугuneari dagokionean, Arau Subsidiarioen izaera ez-arautzailea gehitu de babes gisa, Bordalaborda 02. 08 H.I.E.ko Areak izan ezik, horretan aplikatzekoa den planeamendua 1993ko urtarrilaren 26an onetsi zuelako behin-betikoz Foru Diputatuen Kontseiluak; horren kariaz, planeamendu horren indarraldia eta burutzealdia bete-betean duade, ontsiako planeamendua zehaztasun osoz jasotzea baino ez zutelako egin Arau Subsidiarioek.

Zazpigarren baldintzak ez du eraginik izango Testu Bateratuan.

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

2.- ZERBITZUEN AZPIEGITURAKO SISTEMA OROKORRA.**2.1. KOMUNIKABIDEEN SISTEMA OROKORRA.**

Zortigarren baldintzan jasotako zehaztapenak gehitu dira, nahiz eta horiek Behin-behineko onespeneren ondorioz onartutako zehaztapenei eta Udal Barrutiko afekzioei buruzkoak izan.

2.2. HONDAKIN UREN SANEAMENDU ETA ARAZKETA. (9. baldintza).

Hondakin uren saneamendu eta arazketarako sarearen eskema orokorra gehitu da, hau da, Añarbeko Uren Mankomunitateak 95.04.27an onetsitakoa.

3.- KOMUNITATE EKIPAMENDURAKO SISTEMA OROKORRA (10. eta 11. baldintzak).

San Pedroko hilerri berriaren lekumenari dagokionean, Eusko Jaurlaritzak lekumen horren aldeko iritzia eman zuen iragan azaroaren 22an. Horrezaz, amaitutzat joko dira honako dokumentu honen Behin-betiko Onespen aldian lekumenari buruz sortu ziren eragozpen guztiak.

11. baldintzari dagokionean, erabakian eskatu ziren zehaztapenak gehitu dira jada fitxa bakoitzera.

4.- BALIABIDE NATURAL EN ORDENAMENDUA**4.1. ITSASERTZAK. (12.etik 15.era arteko baldintzak).**

Gauzak argitu asmoz Itsasertzak Zerbitzuko arduradunekin bilera bat izan ondoren, zenbait baldintza Behin-behingo Onespen erabakian jasota zeudela ikusi zen; horiei buruzko kontsultak egin ondoren, gainontzekoak Testu Bateria gehitu ziren.

4.2. URAK. (16. eta 17. baldintzak)

Baldintza hauek Ordenantza Orokorreko artikuluetara gehitu dira.

5.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK. (18. etik 17.era arteko baldintzak)

Erabakira gehitu dira aldaketak, eta horiekin batera lurzoru hiritarrezinerako Nekazaritza Departamentuak iradoki dituen aldaketak ere gehitu dira.

6.- KULTUR ONDAREA. (37. eta 38 baldintzak).

Kultur ondareari buruzko baldintzek, nola nahi ere Euskal Kultur Ondarearen 7/1990 Legeak arautzen dituen zenbait alderdi jasotzea baino ez dutenez egiten, ez lukete izteaz Arau Subsidiarioetan inlako aldaketarik sartu beharrik eragingo, adierazi beharra sortu digun nabardura bategatik izango ez balitz, hau da: aipatu Legeak esaten duenez, Donibaneke herrigune zaharra "EZ dago Monumentu-Kultur Ondasun multzo bezala kalifikaturik" eta horren espedienteari ekin zitzaionetik iragan den epeak jada agortu ditu aipatu legeak ezarritako epeak.

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

Hala eta guztiz ere, Arau hauen xedeko den Birgaiketarako Plan Berezia izapideetan degoenez, eta B.P.B. aren behin-betiko onespenera jo aurretik azken hitza Eusko Jaurlaritzaren Kultur Sailak eman behar duenez, bada, hori guztia kontuan izanik, maila horretan aurkitu beharko da, hain zuzen, aipatu B.P.B.a dokumentuaren eta Ondare Legearen ezarpenez eratorritako irizpideen arteko oreka, monumentu multzoari dagokionean.

B.P.B.an jaso dira zehaztasun osoz herrigune zaharreko lurzati, eraikin eta gune libreetan baimendu diren iharduerak eta ez direnak. Logiko litzateke, beraz, bai Foru Aldundiak bai Eusko Jaurlaritzak lehenbailehen arazo honi buruz ebazpen bat ematea. Alabaina, horrela jarraitzea onartezina gertatzen da, eskuduntza nori dagokionaz Generikoki egindako erreserba horrek lizentziak emateko garaian atzerapena baino sortzen ez duelako eta maila juridikora ere noraeza dakarrelako.

H.I.F. Luzuriagako fitxari dagokionean, oinarrizko parametroak zehaztera jo da behingoz, eta horren garapenerako Plan Berezi bati ekingo zaio.

Area honetako aprobetxamenduei dagokienean, dauden daudenean utziko dira Behin-behineko Onespenen aurrikusitakoak.

Horrekin guztiaren eta kontuan izanik Testu Bateratu honek Diputatuen Kontseiluak 1996ko rksinstrn II an hartutako erabakian jasotako baldintza guztiak bete dituela, amaituzat jo da arauketa prozesu hau.

Pasaia, 1996ko azaroan

Stua: Iñaki Ormazabal Azkoitia

Stua: Patzi Gastaminza Santa Koloma